ESLC

# EHGIren ebaluaziorako tresnarekin ikasleak trebatzeko jarraibideak (EB)

SurveyLang

# Aurkibidea

**1 SARRERA** **3**

**2 PROBAK EGITEAN** **3**

*2.1 Sistemara sartu* *3*

*2.2 Entzumen probarako audioa egiaztatu* *5*

*2.3 Proba bat egitean* *5*

**3 Probako ariketen inguruko informazioa** **7**

*3.1 Entzumen ariketak* *7*

*3.2 Irakurmen ariketak* *12*

# 1 SARRERA

1. Jarraibide hauek Europako Hizkuntza Gaitasunen Ikerlana (EHGI) osatzen duten ariketak nola egin azaltzeko prestatu dira. Horretarako, ikerlan honetarako bereziki diseinatu den ebaluazio-tresna informatizatua erabiliko dugu. Jarraibide hauen helburua ez da praktikarako materiala izatea ezta ere ikerlanean ikusiko duzun materialaren mailaren adierazlea izatea.

2. Jarraibide hauek SurveyLang-en webgunetik (http://www.surveylang.org) deskarga dezakegun ikaslearen eredu-tresnarekin batera erabili beharko lirateke.

3. Ordenagailu bidezko ebaluazio-tresna irakurmen proban, entzumen proban eta ikaslearen galdera-sorta osatzeko erabili behar da. Idazmen proba paperean egingo da, ordenagailu bidezko probetako tresnarekin egin beharrean. Irakurmen proban sei ariketa mota daude; entzumen probak, aldiz, bost ariketa biltzen ditu. Ariketa mota horien adibide guztiak daude eskuragarri SurveyLangen webguneko ikaslearen eredu-tresnan. Ariketak nola egin azaltzen duten argibideak daude Gida honetan.

# 2 PROBAK EGITEAN




ko duzu. Hori egin



5. Webguneko ikaslearen demostrazio-tresna abiarazteko, erabili beheko pasahitza eta gero egin klik “BIDALI" botoian: 9999

6. Saioa behar bezala hasi ondoren, goialdean zure izena (edo IDa), ikastetxearen izena eta herrialdearen izena dituen pantaila azalduko zaizu. Egiaztatu zuzenak direla. Bestela, berehala jakinarazi beharko diozu proba-aplikatzaileari.

7. Informazio horren azpian, ordenagailu bidez egingo dituzun proba ezberdinetarako botoiak ikusiko dituzu. Ikasle bakoitzak azterketa hiru hizkuntza-trebetasunetako bitan bakarrik egingo duenez (irakurmena, entzumena eta idazmena) botoien kopurua aldatu egingo da ikasle batetik bestera, esleituta dituzun azterketen konbinazioaren arabera.

8. Entzumen eta irakurmen probak egin behar dituen ikaslearen kasuan, pantaila honelakoa izango da:

**2. grafikoa. Sistemara behar bezala sartu ondoren bistaratuko den pantaila**




9. Kontuan izan botoiak ezkerretik eskuinera jarrita daudela, erabiltzeko ordena berean. Goiko adibidean, entzumen proba egingo da lehenik; jarraian, irakurmen proba, eta gero, ikaslearen galdera-sorta. Botoia grisa bada, fase horretan ezin daitekeela ireki esan nahi du. Botoia berdea bada, une horretan aktibo dagoela esan nahi du. Goiko adibidean, audio-egiaztapena aktibo dago.

10. “Audioa egiaztatu” botoia (edo soinuaren proba) audioaren bolumena egiaztatzeko eta doitzeko erabiltzen da. Entzumen proba hasi aurretik egin behar da hori beti.

11. Erabili botoiak (entzumena, irakurmena eta galdera-sorta) proba ezberdinak abiarazteko. **Oharra: Arreta jarri entzumen edo irakurmen probetarako botoietan proba-aplikatzaileak hala agindu arte klik ez egiteko. Botoi horiek sakatuz gero, proba hasi egingo da eta egiteko denbora ere abian jarriko da.**

12. Proba bakoitza amaitzean, goian 2. grafikoan ikus daitekeen pantailara itzuliko zara. Segidako hurrengo probaren kolorea aldatu egingo da; grisetik berdera pasatuko da, erabiltzeko prest dagoelako.

## 2.2 Entzumen probarako audioa egiaztatu

13. Jantzi aurikularrak. Jarraian, egin klik “Audioa egiaztatu” botoian; zure ordenagailuko audioa behar bezala dabilela eta bolumena ez dela altuegia edo baxuegia egiaztatzeko pantaila irekiko zaizu. Egin klik “ERREPRODUZITU” aukeran probako soinua entzuteko. Entzun eta erabili bolumenaren graduatzailea bolumena doitzeko. Eredu gisa prestatutako soinua argi eta garbi entzuten duzunean, egin klik “JARRAITU" botoian. Ezin baduzu ezer entzun, mesedez, jakinarazi proba-aplikatzaileari.

**3. grafikoa. Audioa egiaztatu**




14. Kontuan izan soinuaren bolumena entzumen proba egiteko garaian ere doitu ahal izango duzula.

## 2.3 Proba bat egitean

15. Entzumen edo irakurmen proba edo galdera-sorta betetzen hastean, behekoaren moduko pantaila ikusiko duzu.

**4. grafikoa. Probako pantaila**



16. Beheko barrak erakusten du une bakoitzean egiten ari zaren probak zenbat ariketa dituen. Lan horiek banaka azaltzen dira “Ariketen bistaratze-eremua” izenekoan. Oharra: Ariketa mota horiek geroxeago azalduko ditugu jarraibide hauetan. Oraingoan, azterketako pantailaren elementuak aztertuko ditugu.

17. “Argibideak” izeneko laukiak, goiko ezkerreko ertzekoak, ariketa nola egin azaltzen du. Beti irakurri argibide horiek aurrera jarraitu baino lehen.

18. “Geratzen den denbora" izeneko botoiak (goialdeko eskuineko ertzean) ariketa horretarako zenbat denbora geratzen zaizun erakusten du. Minutu bat falta arte, geratzen den denbora minututan erakusten du; horren ondoren, segundotan. Probako ordulariak 10 minutu eta 5 minutu geratzen direnean horren berri emango dizu. Kontuan izan irakurmen probak 30 minutu irauten duela zehatz-mehatz. Entzumen probak, gutxi gorabehera, 30 minutu irauten du, grabazioaren luzeraren arabera. Ordularia 0 segundotan gelditzen denean, beste 30 segundo izango dituzu azterketa osatzeko probako pantaila automatikoki itxi aurretik.

19. Pantailaren behealdeko nabigazio-barrak probako zer tokitan zauden, eta dagoeneko zer ariketa eta galdera osatu duzun erakusten du. Egiten ari zaren probako galdera bakoitzean karratu zenbakiduna dago. Une bakoitzean lantzen ari zaren galderak marko gorria du inguruan (4. grafikoko 7. zenbakian ikus dezakezu, adibidez). Urdinak galderari erantzun diozula esan nahi du. Grisak galdera oraindik erantzun gabe dagoela adierazten du.

20. Nabigazio-barra erabil dezakezu proban aurrera eta atzera egiteko. Karratu zenbakidunaren gainean klik egiten baduzu, dagokion galdera bistaratuko zaizu. Galdera erantzuteko prest dago. Era berean, nahi izanez gero, dagoeneko osatu duzun edozein galderaren erantzuna aldatu ahal izango duzu. Zure erantzunak edozein unetan aldatu ahal izango dituzu proban denbora-mugara iritsi eta proba itxi aurretik.

21. Azterketa hastean, karratu guztiak grisak izango dira eta lehen probako lehen galderan kokatuko zaitu ordenagailuak. Azterketa ordenan egitea gomendatzen dizugu; hau da, nabigazio-barrako ezkerretik eskuinera. Hori pantailako behealdeko eskuinean dagoen “Hurrengo galdera” botoian klik eginda egin dezakezu. Bestela, behealdeko karratu zenbakidunen gainean klik ere egin dezakezu.

22. Bereziki garrantzitsua da azterketa ordenan egitea entzumen probaren kasuan; izan ere, audio-pistak galderak zenbakien ordena horren arabera biltzen ditu.

23. Entzumen proba guztiak bi aldiz entzungo dituzu. Galderak irakurtzeko denbora izango duzu aurretik; gainera, ariketa bakoitzaren ondoren, emandako erantzunak egiaztatzeko denbora izango duzu.

# 3 Probako ariketen inguruko informazioa

## 3.1 Entzumen ariketak

24. Atal honek ordenagailu bidezko ikaslearen demostrazioko tresnan entzumen proban topa ditzakezun ariketa motak nola egin behar dituzun azaltzen du.

**Entzumeneko 1. ariketa**

Ariketa honetan, jendea hizketan entzungo duzu bost egoeratan. Egoera bakoitza bi aldiz errepikatuko da hurrengoa entzun aurretik. Egoera bakoitzean, galdera bat eta irudi sorta bat ikusiko duzu pantailan. Galdera entzungo duzu eta irudiak ikusteko denbora izango duzu. Galdera bakoitzean, aukeratu erantzun zuzena (A, B edo C) erantzunaren alboko botoian klik eginda. Kontuan izan erantzuna alda dezakezula beste botoi batean klik eginda. Amaitutakoan, joan hurrengo galderara “Hurrengo galdera” botoian edo nabigazio-barrako hurrengo zenbakiaren gainean klik eginda.



**Entzumeneko 2. ariketa**

Ariketa honetan, jendea hizketan entzungo duzu  bost egoeratan. Egoera bakoitza bi aldiz errepikatuko da hurrengoa entzun aurretik. Egoera bakoitzean, egoera azaltzen duen esaldi bat, galdera bat eta idatzitako aukera multzo bat agertuko zaizu. Egoera eta galdera entzun ere egingo dituzu eta aukerak irakurtzeko denbora emango zaizu. Galdera bakoitzean, aukeratu erantzun zuzena (A, B edo C) erantzunaren alboko botoian klik eginda. Erantzun bat aukeratzen duzunean, botoia behean ikus dezakezun eran aldatuko da. Kontuan izan erantzuna alda dezakezula beste botoi batean klik eginda. Amaitutakoan, joan hurrengo galderara “Hurrengo galdera” botoian edo nabigazio-barrako hurrengo zenbakiaren gainean klik eginda.



**Entzumeneko 3. ariketa**

Ariketa honetan, pertsona bat edo gehiago entzungo dituzu hizketan. Pasartea bi aldiz entzungo duzu. Entzundakoari buruzko galdera batzuk daude. Galdera bakoitzean, aukeratu erantzun zuzena (A, B edo C) erantzunaren alboko botoian klik eginda. Erantzun bat aukeratzen duzunean, botoia behean ikus dezakezun eran aldatuko da. Kontuan izan erantzuna alda dezakezula beste botoi batean klik eginda. Galdera guztiak pantaila berean azaltzen dira. Dena den, kontuan izan galdera guztiak ikusi ahal izateko korritze-barra erabili beharko duzula. Galdera bakoitzean, aukeratu erantzun zuzena (A, B edo C). Jarraian, joan hurrengo galderara.



**Entzumeneko 4. ariketa**

Ariketa honetan, bi pertsona entzungo dituzu hizketan. Pasartea bi aldiz jarriko dute. Entzundakoari buruzko esaldi batzuk ikusiko dituzu. Galdera bakoitzean, baieztapena Zuzena ala Okerra den erabaki beharko duzu. Adibidez; 9. galderaren erantzuna Ez dela uste baduzu, egin klik Okerra dioen aukeraren alboko botoian. Adibidez; 9. galderaren erantzuna Bai dela uste baduzu, egin klik Zuzena dioen aukeraren alboko botoian. Jarraian, joan hurrengo galderara. Galdera guztiak pantaila berean daude.



**Entzumeneko 5. ariketa**

Ariketa honetan, bi pertsona entzungo dituzu hizketan. Bost pertsonari buruz hitz egingo dute. Pasartea bi aldiz jarriko dute. Galdera bakoitzean, jendea irudi egokiarekin lotu beharko duzu (A-G). Bi irudi daude soberan, pertsona horiekin bat ez datozenak. Ariketa honetan, ez erabili letrarik behin baino gehiagotan. Jendea irudi egokiarekin (A-G) elkartzeko, arrastatu irudia eskuineko koadrotik eta askatu irudia lotu nahi diozun pertsonaren izenaren alboan dagoen karratuan. Egin klik irudian eta mantendu saguaren botoia sakatuta irudia mugitzen duzun bitartean. Askatu saguaren botoia irudia karratuaren gainean jarrita dagoenean. Zure erantzuna aldatu nahi izanez gero, irudia ezkerraldeko karratutik hartu eta eskuineko karratuan utz dezakezu berriro. Era berean, irudia karratu batetik bestera eraman dezakezu arrastaka. Egiaztatu karratu guztiek irudi bat dutela hurrengo ariketara joan aurretik.



## 3.2 Irakurmen ariketak

**Irakurmeneko 1. ariketa**

Ariketa honetan, testu bat irakurri eta horren inguruko galdera batzuei erantzun beharko diezu. Galdera bakoitzean, erantzun zuzena irudi sail batetik aukeratu beharko duzu. Aukerak ezberdinak dira galdera bakoitzean. Galdera bakoitzean, aukeratu erantzun zuzena (A, B edo C) irudiaren alboko botoian klik eginda. Kontuan izan erantzuna alda dezakezula beste botoi batean klik eginda. Amaitutakoan, joan hurrengo galderara “Hurrengo galdera” botoian edo nabigazio-barrako hurrengo zenbakiaren gainean klik eginda.



**Irakurmeneko 2. ariketa**

Ariketa honetan, testu bat irakurri eta horren inguruko galdera batzuei erantzun beharko diezu. Galdera bakoitzean, erantzun zuzena idatzizko aukera sail batetik hautatu beharko duzu. Aukerak ezberdinak dira galdera bakoitzean. Galdera bakoitzean, aukeratu erantzun zuzena (A, B edo C) erantzunaren alboko botoian klik eginda. Erantzun bat aukeratzen duzunean, botoia behean ikus dezakezun eran aldatuko da. Kontuan izan erantzuna alda dezakezula beste botoi batean klik eginda. Amaitutakoan, joan hurrengo galderara “Hurrengo galdera” botoian edo nabigazio-barrako hurrengo zenbakiaren gainean klik eginda.



**Irakurmeneko 3. ariketa**

Ariketa honetan, testu bat irakurri eta horren inguruko galdera batzuei erantzun beharko diezu. Galdera bakoitzean, erantzun zuzena idatzizko aukera sail batetik hautatu beharko duzu. Aukerak berdinak dira galdera bakoitzean. Galdera bakoitzean, aukeratu erantzun zuzena (A, B edo C) erantzunaren alboko botoian klik eginda. Erantzun bat aukeratzen duzunean, botoia behean ikus dezakezun eran aldatuko da. Kontuan izan erantzuna alda dezakezula beste botoi batean klik eginda. Amaitutakoan, joan hurrengo galderara “Hurrengo galdera” botoian edo nabigazio-barrako hurrengo zenbakiaren gainean klik eginda. Kontuan izan testu osoa ikusi ahal izateko agian korritze-barra erabili beharko duzula.


You will read a magazine article about learning a new language.
For the next 6 questions, answer A, B or C.

Irten

Geratzen den denbora: 29 min

**A new language**

*Three English people talk about how they learnt a new language.*

A Jon (Welsh)

My dad's a teacher and we moved to Wales two years ago. Everyone in the town we live in speaks Welsh as their first language, so I was keen to be able to have a conversation with them. I was worried about using the language-learning software because I'm not good at using a computer, but it uses pictures and sounds to help you. It's totally different from learning a language in a classroom.

B Sami (Chinese)

I went to China to teach English at a university near Shanghai. I couldn't speak a word when I arrived and wasn't planning to stay long, so thought I would manage. I also believed people would speak English but was surprised how little the people I met knew. Learning written Mandarin, the language spoken in most of China, is as hard as it looks. Speaking is a little bit easier and, once you start to make an effort, you learn words quite quickly.

C Daniel (Spanish)

I'm hoping to travel around South America when I leave college and so I decided I should really work hard at learning Spanish. I'd bought some books but found they weren't very good. Then I heard about some classes. I went along and found they were really relaxed with only three other students. I really liked the teacher - she was great. She would write short stories for us and we would learn new vocabulary and grammar.

9

Which person mentions getting on very well with his teacher?

A Jon (Welsh)
B Sami (Chinese)
C Daniel (Spanish)

1 2 3 4 5 6
1 2 3 4 | 5 6 7 8 | 9 10 11 12 13 14 | 15 16 17 18 19 | 20 21 22 23 24 25 | 26-31 | >>

**Irakurmeneko 4. ariketa**

Ariketa honetako galdera bakoitzean, egoera azaltzen duen irudi batekin lotu behar duzu zazpi ohar edo etiketa horietako bat. Irudiek 15–19 arteko zenbakiak dituzte; oharrek, aldiz, A–G etiketak dituzte. Irudiekin bat ez datozen bi ohar gehigarri daude. Ariketa honetan, ez erabili letrarik behin baino gehiagotan. Galdera bakoitzean, aukeratu erantzun zuzena (A–G) erantzunaren alboko botoian klik eginda. Erantzun bat aukeratzen duzunean, botoia behean ikus dezakezun eran aldatuko da. Kontuan izan erantzuna alda dezakezula beste botoi batean klik eginda. Amaitutakoan, joan hurrengo galderara “Hurrengo galdera” botoian edo nabigazio-barrako hurrengo zenbakiaren gainean klik eginda. Pantailako goiko eskuinaldeko ertzean taula txiki bat azalduko da. Taula horri esker, dagoeneko irudi batekin (15–19) zer ohar (A–G) lotu duzun ikusi ahal izango duzu.



**Irakurmeneko 5. ariketa**

Ariketa honetako galdera bakoitzean, esanahi bera duen esaldi batekin lotu behar duzu zortzi ohar edo etiketa horietako bat. Esaldiek 20–25 zenbakiak dituzte; aldiz, oharrek A–H etiketak dituzte. Esaldiekin bat ez datozen bi ohar gehigarri daude. Ariketa honetan, ez erabili letrarik behin baino gehiagotan. Galdera bakoitzean, aukeratu erantzun zuzena (A–H) erantzunaren alboko botoian klik eginda. Erantzun bat aukeratzen duzunean, botoia behean ikus dezakezun eran aldatuko da. Kontuan izan erantzuna alda dezakezula beste botoi batean klik eginda. Amaitutakoan, joan hurrengo galderara “Hurrengo galdera” botoian edo nabigazio-barrako hurrengo zenbakiaren gainean klik eginda. Pantailako goiko eskuinaldeko ertzean taula txiki bat azalduko da. Taula horri esker, dagoeneko irudi batekin (20–25) zer ohar (A–H) lotu duzun ikusi ahal izango duzu.



**Irakurmeneko 6. ariketa**

Ariketa honetan, testu batetik sei esaldi ezabatu dira. Eskuinaldeko koadroan, A–G etiketak dituzten zazpi esaldi ikusiko dituzu. Erabili behar ez duzun esaldi gehigarri bat ere badago. Esaldi zuzena lotu beharko duzu hutsune bakoitzarekin. Horretarako, eraman arrastaka esaldia eskuinaldeko koadrotik eta askatu zure ustez kokatu beharko litzatekeen hutsunean. Egin klik esaldian eta mantendu saguaren botoia sakatuta esaldia mugitzen duzun bitartean. Askatu saguaren botoia esaldi hori hutsunearen gainean jarrita dagoenean. Zure erantzuna aldatu nahi izanez gero, esaldia arrastaka eraman dezakezu testuko bere kokapenetik berriro eskuinaldeko koadrora. Era berean, esaldia testuko toki batetik beste batera eraman dezakezu arrastaka. Egiaztatu hutsune guztiek esaldi bat dutela hurrengo ariketara joan aurretik.


You will read an article about a theatre critic.
Six sentences have been removed from the text below. Read the text and choose the sentence (A-G) which fits each gap. There is one extra sentence which you do not need to use.

Irten

Geratzen den denbora: **27 min**

**Mrs Hart – amateur theatre critic**

Elisabeth Hart went to the theatre fifty-five times last year, and wrote pages of notes on each visit. However, she's not a professional theatre critic. She's an ordinary member of the public on the judging panel of this year's National Theatre Awards.
Mrs Hart was one of four theatre-lovers chosen to judge all new drama productions last year. [Her appointment was therefore something of a dream come true.] Mrs Hart thinks it a good system. 'It's important to have amateurs taking part in the decisions,' she says. 'It stops the awards appearing to have been fixed like some others. And if a play wins an award, the public knows that it's been approved by people with no axe to grind.'
Mrs Hart's extremely enthusiastic about the theatre. 'The year before last I went to over thirty plays,' she says. .......... It began with an application form left on a foyer shelf by the Theatre Society, which organises the awards. She filled it in, added a sample review, and was selected from several hundred applicants.
'They were looking for people with a wide taste in theatre,' she explains. 'I always enjoyed acting in plays when I was young, and I regularly bought cheap standing tickets for productions.' Being a judge was hard work, though. .......... 'But I never got sick of it. Even the plays I didn't like always had some redeeming qualities.'
She could never sit back and relax, though, because she had to make notes on everything. .......... 'It wasn't just the actors we were judging, but also costume design, direction, lighting and script – twelve categories in all. But I still enjoyed it. It felt like an enormous privilege.'
.......... 'That didn't happen at all. It was all very civilised and friendly,' says Mrs Hart. 'We were listened to and our votes were all equal. I wasn't treated differently at all.'
.......... 'It's bursting with talent on all fronts, from playwriting to direction, and there are plenty of innovative productions.'

A Having to take this approach meant that she couldn't let her concentration slip at any time.

B In this situation there's surely a danger of the professional critics dominating the discussions.

C Regular theatre-goers usually disagree with some of their judgements, of course, and Mrs Hart's no exception.

D They were part of a panel that also included five professional theatre critics.

E Her appointment was therefore something of a dream come true.

F The experience has left Mrs Hart optimistic about the theatre's future.

G In one week alone, her duties involved her reviewing as many as seven plays.

1 2 3 4 5 6
1 2 3 4 | 5 6 7 8 | 9 10 11 12 13 14 | 15 16 17 18 19 | 20 21 22 23 24 25 | 26-31 | >>